



Oletako jaietako herri bazkaria, 2023an.

Helduentzako Olinpiadak, lehen aldiz, Oletako jaietan

Gurasoei erreleboa hartu, eta gazteek osatu dute aurten Oletako jai batzordea. Betiko festak antolatu dituzte, betiko ordutegiekin, baina aurten, egun bat gehiago izango dute, San Joan bezpera astelehenean tokatzen delako. Atzotik, jaietan murgilduta dago auzoa, eta asteburuan, ez dute aspertzeko tartetik izango.

📷 Sara Ibarburen Etxeberria

Udako jaietan murgilduta daude Donostiako auzoak da-goieneko, eta egun hauetan ari dira ospatzen Oletako festak ere. Atzo arratsaldean bota zuten txupinazoa, eta herri afariarekin eta karaokea-rekin eman zioten amaiera egunari. Gaurtik astelehenera, jarraipena emango diote egitarauari, eta San

Joan suaren argipean itzaliko dituzte festak.

Uxue Franco (Oleta, 2005) jai batzordeko kideak azaldu duenez, aldaketa garrantzitsu bat gertatu da batzordean: «Gazteak sartu gara aurten, orain arte, gurasoek egiten zituztelako festak. Ordea, dagoeneko pixka bat kokoteraino zeuden, eta pentsatu genuen aurten

gure urtea zela eta gu sartu behar ginela jaiak antolatzen». Francoren arabera, betiko plangintza bera jarraitu dute, eta «urteroko festa berdinak» prestatu dituzte, nahiz eta aurten, jai egun gehiago izan. «San Joan bezpera noiz tokatzen den, horrek baldintzatzen ditu jaiak. Aurten, astelehena tokatzen da, eta beraz, atzo hasi genituen jaiak», adierazi du Francok.

Hori dela eta, jarduera gehiago sartu behar izan dituzte egitarauan, eta berritasun gisa, Nagusientzako Olinpiadak antolatu dituzte. «Txosnan eman daiteke izena, eta gehienez, hiru-bost pertsonako taldeak izango dira», jakinarazi du jai batzordekoak.

Francoren arabera, Oletako jaiak duten gauzarik bereziena da «herriko festa bat dela, gurea». «Ez da kanpotik jende asko etortzen, eta auzotarrok geratzen gara auzoan. Donostiako jai askotara joaten da kanpoko jendea, baina Oletan beti berdinak gaude, eta denok ezagutzen dugu elkar», azaldu du, aurten ere auzoko festetan primeran pasatzeko esperantzaz. ●



OSTEGUNA 19

18:00

Jaien hasiera txupinazoarekin. Buruhandiak.

18:30

Txokolate jate herrikoia.

19:00

Txikientzako jolasak.

21:00

Afari herrikoia auzoko plazan.

23:00

Karaokea.

OSTIRALA 20

16:30

Auzoko plazan: Marrazki Lehiaketa.
Gaia: librea.

18:00

Barren herrikoia: Pala txapelketako parte hartzaileentzat.

19:00

Finala: Oletako pala txapelketa.

22:00

Kuadrilla afaria auzoko plazan.

22:30

Musika Herra DJ-aren eskutik.

LARUNBATA 21

11:00

Txikientzako jolasak.

12:00

Prokultura: haurrentzako makillaje tailerra.

14:00

Bazkari herrikoia.

16:00

Mus lehiaketa.

19:00

Sardina jate herrikoia.

23:30

Festa tematikoa: famatu baten klonak bihurtu zaitez. Ostro DJ-aren eskutik.

00:30

Zezensuzkoa.

00:45

Dantza lehiaketa.

IGANDEA 22

08:00

Diana eta gosari herrikoia.

11:00

Meza.

12:30

Toka eta bote txapelketa.

14:00

Erretiratuentzako luntxa. Parrillada dastaketa.

15:00

Bingo.

16:00

Tute txapelketa.

17:30

Antzerkia, Tomasene Kultur Etxearen eskutik eta ping-pong lehiaketa.

18:30

Txokolate jate herrikoia.

19:00

Zumba familian.

20:00

Bingo musikatua.

ASTELEHENA 23

19:00

Nagusientzako Olinpiadak.

23:45

Zezensuzkoa

00:00

San Joan sua eta festen bukaera.